

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Izura-Azme

Aurkibidea

Udalerria: Izura-Azme

Sarrera



Izura-Azme Nafarroa Behereko udalerria da, Oztibarre eskualdean historikoki garrantzirik handiena duena. Herri mugakideak: iparraldean, Ostankoa eta Uhartehiri; ekialdean, Arhantsusi; mendebaldean, Landibarre; eta hegoaldean, Larzabale-Arroze-Zibitze eta Jutsi.

Udalerritik Biduze ibaia igarotzen da, baita bertara isurtzen diren hainbat erreka ere. Azme herria 1841. urteko ekainaren 13an lotu zitzaion Izurakoari, udalerri bakarra osatzeko. Izuran Latsaga gaztelua dago. Laborantzan, abere-hazkuntzan (ardi eta behi) eta janari-industrian (esnea, haragia) oinarritzen da bertako ekonomia-jarduera nagusia.

- **Biztanleak:** 200
- **Euskaldunak:** %56,83

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **21**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **21**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Zelie Haranberri (1929)



Izuran sortua. Gurasoak ere baxenabartarrak zituen, biak ere Oztibarre eskualdekoak. Sei anai-arreba ziren, lau neska eta bi mutil. Laboraria.

Pierre Salles (1930)



Pierre Altzurukun sortu zen, baina bortz urtetan Izurako Eiherara bizitzera etorri zen aitamekin. Ama Altzurukukoa zuen; aita, aldiz, Pagola Lakotegikoa. Horregatik, gaur egun, nahiz eta etxeak Eihera duen izena, "Lakoteia" erraten dio jendeak. Ofizioa aitatzik aitari eta aitak semeari transmititurikoa da. Pasaioz aipatzen du. Lau anai-arrebetarik zaharrena da Pierre. Altzurukuko Graxiana Intxausperekin ezkondu zen lehenik, baina eritasunak eraman zuen gazterik, hiru seme-alaba ttipi utzirik. Aski fite, Marceline Prebende domintxindarrarekin ezkondu zen, eta hark hiru haurrak bereak balira bezala hezi zituen. Gerora, bertze hiru ere sortu ziren junta horretatik. Pierre, beraz, sei seme-alaben aita da. Aljeriako gerla egin da. Eiheraz ala errotaz gain, ondoan segeria (zerrategia) ere muntatu zuen. Horri esker atera zen aurrera, eiherak gainbehera erori baitziren elektrikaren etorrerarekin.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Familiako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Haranberri, Zelie
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: IAZ-003/001
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak
- **Laburpena**: Senarra joan zen bere etxera bizitzera. Ama aspaldi galdua dute. 6 seme-alaba ziren.

Transkripzioa

- Zelie Haranberri.
- Bai.
- Zira, eta hemen sortia, etxe hontan.
- Etxe hontan sortia, ene lehenagoko izena Espelette.
- Espelette.

- Gero orai Haranberri senarraina.
 - Eta gero ezkondu zinelarik...
 - Haranberri.
 - Haranberri. Bai.
 - Eta senarra jin zuzun beraz hunat.
 - Ba.
 - Etxe hontarat.
 - Ba.
 - Eta bon, bizi guzia hemen bena pozik, pozik zira. Bizi guzia egin duzula hemen bena kontent zirela, irus zirela.
 - Ah ba, ba, ba, ba, ba, ze egingen nin?
 - Ba, bakotxak beria baitu maite.
 - ah eta ba etxaldia e ni beste ala... ahizpa gehiena joan zuzun hantxe Suhuskunerat, ta gero ni, ni nintzun eta heben plantatu nintzun. Ordian aita bizi ta ama aspaldi hila dizi.

- A bai, eh?
 - Ba.
 - Bi ahizpa zinten soilik?
 - Ya, ya, sei bagintzun.
 - Ah, sei zinten?
 - Ba hori duk ba, lau neskato ta bi mutiko.
 - Soizu, ah, ene ama eta bezala, ene ama eta ere hala ziren, lau nesako eta bi muttiko. Eta zoin ziren etxean xintxoago, nesakoak edo muttikoak. Zein ziren xintxoago, zein ziren gisakoago?
 - Ah gisakotasuna...
 - Gisakoaak edo bihurritoak edo...
 - apezpres ba, apezpres zuzun ba, ba, ba.
 - Ah untsa, untsa.
 -

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Azmeko kapera

- **Hizlaria(k)**: Haranberri, Zeli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: IAZ-003/002
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:02:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena**: Gaur egun barne bat baino ez da. Eliza desegina izan zen ondoko Izura herrian handiago egiteko.

Transkripzioa

- Eta Azmen dago beraz, etxe hau.
 - Ba.
 - Lehenago grabatzen hasi aitzin, enregistrarzen hasi aitzin erran duzu eta nola da kapera bazen hemen eta...
 - Ba, hantxe [hilerrietan] han duzu oraino're kapera hura, "en fin" kapera, barne bat, barne bat duzu, barne ttipi bat.
 - Eta lehenago, lehenagoko denboretan hor egiten ziren mezak eta guzi?
 - Han lehenago bazun eliza, deja desegin zizien ba hura.
 - Ah, egina...

- Ah ba, oh ba, Izuran egin artio, hor gindien bena gero Izuran egin zizien berria, eliza.

- Izurakoa berri da beraz.

- Ba, a berri, aspaldikoa duzu bena ba, ah ba hebengoa fini zun ba, ah ba, ba, azpikoa ba.

- Ta biendako egin zizien...

- Biez bat.

- Ta lehenago zer ziren, bi herri eta gero bat bihurtu edo holako zerbait edo...

- Horri ez dauzut errain xuxenik oizu, beti Izura-Azme erraiten zizien.

- Bai, zien denboran beti ber gauza.

- Beti berdin intzun...

2.2. Azmeko sakramendu sainduaren istorioa

- **Hizlaria(k)**: Haranberri, Zelig
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: IAZ-003/003
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:02:09. **Bukatu**: 00:03:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Azmeko elizako sakramendu saindua Izurara eramateko prozesioa egin zuten. Atea giltzaz itxi eta apaiza kanpoan gelditu omen zen. Alta sakramentua barnean.

Transkripzioa

- Ba, ba, segurrago ba.

- Bai. Ta lehenago kontatu duzu hor istorio bat pollita eh eliza, elizain...

- Ah, ah ba, ba, ba.

- Nola zen hura?

- Prosezionian Izuratik, oi Azmetik Izurarat Izuran emaitako, eliza berriain egiteko, prosezionian ereman zizien sakramendu saindia Azmeko elizatik.

- Ah, soizu, zera.

- Ba, ba, eta gero ordian han ezarri zizien eta barne baten hura ezar eta prozesionian joan zitzun eta barne batian hura han ezar eta apezari jelgi zitzaien kanporat eta bortari zerratu ordian sakramendu saindia han zin, ta "allez" [peligru] zitzun kanporat ere, sakramendu saindia han zin.

- Soizu.

- Beste elizan ezartzeko.

- Jo.

- Hala partitu zitzun.

- Eta hola.

- Uf, ordian istorio ba omen zitzun.

- Bai.

- Ba, ba, nik intzutia dizit e, gero eztakizut bena gure attittin eta denborako ixtorioa zun.

- Bai, beraz badira urte zonbait, eh?

- Ah buf!

3. Herria, azpiegitura

3.1. Izura-Azme herriari buruz

- **Hizlaria(k)**: Haranberri, Zeli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: IAZ-003/004
- **Iraupena**: 0:00:26. **Hasi**: 00:03:04. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura
- **Laburpena**: Izura handiagoa da Azme baino. Leku gehienetan bizi da jendea

Transkripzioa

- Aspaldi duzu, ah aspaldi!
- Badu zonbait urte bai.
- Ba.
- Eta Izura herri handiagoa da Azme beno?
- Ba, ba, ah ba haundixoño tzu ba. Azme ttipia duzu, ba.
- Zonbait etxe?
- Ah ba ba, zonbait, zonbat etxe ez dakizut, zonbat etxe?
- Ez zonbait etxe badirela.
- Zonbait etxe, ba, ba, ba. Ba Izura gehiago duzu ba.
- eta hor jendeak eta guzi badira, ez?
- Ah ba, ba, jendiak habaroxetan batzu ba.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Latsaga gaztelua (IAZ-003/005)

Zutik da, hilerriaren ondoan. Euren amatxi handik etorria da. Familia izan dute bertan. Hutsik da gaur egun. Ederra da, harri pikatuz egina, eta ingurukoak baino zaharragoa. Presondegia ere bazen.

2. Herrian zer baden (IAZ-003/006)

Okindegia, epizeria eta bi ostatu dira herria. Jaten ere ematen dute ostatu baten. Beilari asko bada gaur egun, ez lehenago.

3. Etxeko segida (IAZ-003/007)

Txikitatik dute ikasi laborantza. Pozik da segida baduelako eta etxea aurrera doalako. Amatxi eta berramatxi egina da. Euskaldunak dira bere ondorengoak.

4. Etxe ingurua (IAZ-003/008)

Orain lanak errezago dira sasoi batean baino. Garia erein izan dute, baina artoa edota garagarra gehiago. Zelaiak dira nagusi, ardiak baitituzte. Sasoi baten baino zelai gehiago dira. Lur berriak egin dira. Hala ere oihanak ez dira nabarmenki gutxitu.

5. Baserriko tresnak (IAZ-003/009)

Aspalditik dituzte traktoreak etxean. Tresna ugari zituzten. Esaterako brabanta lurra itzultzeko eta area berdintzeko. Otso emaiten (ittulan) ibiltzen ziren emakumeak. Euliak kentzen ere bai. Belarretan hasi orduko tresnak ezagutu ditu.

6. Ganadua (IAZ-003/011)

Behiak, ardiak, mandoa eta hegaztiak eduki dituzte.

7. Bideetan izan den aldaketa (IAZ-003/012)

Bideak okerragoak ziren sasoi batean gaur egun baino. Konpontzen hasi zirenean harri xehetua botatzen eta hedatzen zuten gainetik.

8. Oztibarre ibarra (IAZ-003/013)

Zortzi herrik osatzen dute Oztibarre. Arhantsusi eta Jutsi barne dira. Uharten hasten da Amikuze

9. Eskolan frantsesez (IAZ-003/015)

Elurrarekin ez ziren eskolara joaten. Frantsesez ari behar zuten, eta euskaraz ari zenari ziria pasatzen zioten. Ziria zuen azkenak zigorra jasaten zuen.

10. Lehengo eta oraingo bizimodua (IAZ-003/016)

Izugarrizko kanbioa gertatu da zentzu guztietan. Ez luke lehengora berriz ere itzuli nahi. Errazago bizitzen da gaur egun.

11. Arropak garbitzea (IAZ-003/017)

Prozesu luzea zen. egosi eta abar egin ondoren etxe azpiko iturrian zituzten bi latsarri handietan garbitzen zituzten arropak.

12. Auzoen arteko harremana (IAZ-003/018)

Lehenago askoz ere handiagoa zen. Lehengoari konparatuz, gaur egun ez dute batere harreman bera. Arto-xuriketa edota gari jotzea ziren elkarrekin egiten zituzten lanetako batzuk.

13. Arto-laborantza (IAZ-003/019)

Eurek jatekoa egiten dute. Amikuze aldean berriz, hazitarakoa. Lehengo aldean asko egiten da orain.

14. Etxeko familia (IAZ-003/020)

Lehenago askoz ere senide ggehiago bizi ziren, orain bi baino ez. Denak etxean egoten ziren batez ere, nahiz eta haurrak eskolara ere joaten ziren.

15. Ameriketarako emigrazioa (IAZ-003/021)

Ia etxe guztietatik emigratzen zuten. Ameriketara joan zirenak asko izan ziren, tartean bere bi semeak. Sos pixka baten bila abiatzen ziren.

16. Oztibarreko mezak (IAZ-003/024)

Lehenago herri bakoitzean apaiz bat zen eta igande oroz egiten zen meza. Alta, denborarekin, apaizak gutxitu dira eta orain Oztibarre osoko itzulua egiten du apaiz bakarrak, igande bakoitzean leku desberdin baten arituaz.

17. Donapaleuko merkatua (IAZ-003/025)

Gosaldu eta bazkaldu egiten zuten Donapaleuko merkatuan. Etxabere ugarirekin joaten ziren. Behi-orgekin zenbait eta eurak zaldiz tiratutako karrozan ibiltzen ziren. Aro txarra zelarik ere, aita eskolara karrozan joaten zitzaien bila.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com